

Festa eta kolorea nagusi gaurkoan, inauteriei hasiera emateko

Hernanin eta Astigarragan, mozorroak, txarangak eta festa izango dira protagonistak gaurtik asteartera Hernaniren kasuan, eta igande arte Astigarragan. Goizuetan berriz, etzi hasiko dira, gaztetxoek zahagi dantzarekin.

URUMEA INAUTERIAK

Asteburu indartsu eta koloretsua datorrigu aurretik bailara hainbat herritarra. Hernaniren kasuan, Inauteriei, hilaren 16an eman zitzaizkien hasiera, Inude eta Artzaiekin konpartsa-ekin eta Musika Bandak eskainitako Inauterietako iragarpen kontzertuarekin. Hala ere, gaur emango zaie jaiei hasiera ofiziala, eta hilaren 25ean amaituko dira, sardinaren ehorzketarekin.

Bost egun hauetan, hamaika ekintza egongo dira, adin guztientzat egokitutakoak. Eta gaur, Langile Ikastolako ordezkariak emango diete hasiera Inauteriei, herriko plazan. Behin txupina botata, ikastolako haurrak aterako dira herrian barrena txarangarekin kaleak eta baz-

terrak girotzera. Arratsaldean, *Gora kasete* ikuskizuna eskainiko da eta bertaraten diren guztiak jarriko ditu dantzan. Musika lasaiagoaz gozatzeko aukera ere egongo da, Hernaniko Musika Bandak *Klasiko Kuttunak* abestuko baitute, arratsaldeko 19:30etan, Milagrosan. Hona-koak izango dira joko dituzten abestiak: Eugenio Delgadoren *Little Big Jon*, Jose Francoren *Lau urtaroak obrako*, *Udaberria* eta *Udara*, Tomas Bretonen *La Dolores* operako *Gran Jota*, Geronimo Gimenezen *La torre del oro* eta J. Ortega Villar «Canario»ren *Orbagur 50*. Eta asteartera arte ekintza gehiago egongo dira

1920ko hamarkadara buelta Gaztetxekoek ere bat egin dute Inauterietan, eta bihar bazkaria egingo dute eguerdiko 14:00etan.



Aurreko asteburuan, kalderero astigartarrek iragarri zuten Inauterietan etorrera.

Mozorroaren tematika 1920. hamarkada izango da, eta kontraktantxakoek diote, «tematika jarraitzen dutenentzat saria egongo da».

Astigarragan, gaurtik igandera Hernaniren moduan, Astigarragan ere gaur emango zaie Inauteriei hasiera ofiziala. Eta astigartar txikiak izango dira Inauteriei hasiera emango dioten protagonistak, Superheroiak izeneko emanaldia eskainiko baitute kiroldegian eguerdiko 14:30etan. Etziko Inude eta Artzaiekin konpartsan ateratzeko

azken ensaioa gaur izango dela gogorarazi dute antolatzaileek.

Ereñotzun eta Goizuetan ere, festa eta kolorea

Goizuetan, etzi hasiko dira Inauteriak eta asteartean amaituko dira eta hamaika ekintza egongo dira. Ereñotzun berriz, eguerdiko 15:00etan aterako dira txikiak kalejira eginez eta frontoiean emanaldia eskainiko dute, eta arratsaldeko 16:00etan Katiluzar Guraso Elkartearen eskutik merienda eskainiko da. Jarraian, *Euskal Eskola Publikoa harro* argazkia aterako dute. **K**

M8ren inguruan eztabaidarako deia, gaur

Gaur arratsaldeko 18:30etarako luzatu dute deia Astigarragako Aztifemiek, martxoaren 8aren inguruan eztabaidatzeko eta erabakitzeko.

ASTIGARRAGA AZTIFEMIAK

Gaur arratsaldeko 18:30etan, Astigarragako emakume feministek elkartzeko deia luzatu dute, kultur etxean, M8aren inguruan eztabaidatzeko eta nondik norakoak jakiteko. Aztifemiek adierazi dute, «aurten zaintzan jarriko dugu arreta, gure borroka feminista an-

tikapitalista eta antolatuta izango da». «barrutik mugitzen bazaitu, matxismoaz nazkatuta bazaude, sareak sortzeko beharra sentitzen baduzu, zuretzako leku bat zain daukazu!». Hori horrela, martxoaren 8an kalera ateratzeko asmoa duten guzti horiei adierazi nahi diete, «zure indarra behar dugu aurten ere, kaleak betetzeko». **K**



Astigarragako Aztifemiek, M8ren inguruan eztabaidatzeko deia luzatu dute.

V. Patchwork, datorren ostiral arte

HERNANI ERAKUSKETA

Astelehen honetan eman zaio hasiera Patchwork erakusketari, eta hilaren 28ra arte iraungo du. Asteazkenean, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara gerturatu daiteke, eta bihar berriz, 10:00etatik 13:00etara, Biterin.

Doako dastaketa gidatua, gaurkoan

HERNANI IPARRAGIRRE

Gaur arratsaldeko 19:30etan, doako dastaketa gidatua eskainiko da, Osiñaga auzoko Iparragirre sagardotegian. Izena eman behar da 943 55 03 28 telefonora deituz.

Argazkigintzan izena eman daiteke

HERNANI IKASTAROA

Argazkigintza digitaleko ikastaroa eskainiko da Biterin, eta hilaren 25arte dago aukera bertan apuntatzeko. Ikastaroan ikasiko da: erretratua, paisaia, argazkilaritza...

Konzentrazioa gaur, zinkoenean

HERNANI KONZENTRAZIOA

Gaur arratsaldeko 20:00etan Zinkoenean jarri dute zita Hernaniko preso eta iheslariaren senide eta lagunek. Bertaratzeko deia luzatu dute.

Trabesiako eski ikastaroa, 29an

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Datorren larunbatean eta martxoaren 1ean, trabesiako eski ikastaroa eskainiko da, Mendiriz Mendiren eskutik. Izena emateko aukera dago oraindik, elkarteko bulegotik pasata, astelehen, ostegun edo ostiralean arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara.

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru txarrekin
* Erresketak
* Lekualdatzeko
* Beilatokiak
* Eskelak, korroak...

JOXE MARI EDARITEGIA

FIDELTASUN TXARTELA

Astelehenetik ostiralera 10 kafe hartuta, 11garrena doan daukazu. Gainera, zure bonoa betetzeko, zozketan parte hartuko duzu:

ASTEBURU BAT DEBAKO AISIA SPAN

Kale Nagusia, 7
943 55 00 32

C.D.HERNANI ZUBIPE FUTBOL ZELAIA

Larunbata 22
12:00 Emakumezkoen Euskal Liga - Eibar
16:30 Gizonezkoen Ohorezko Jubenila - Vasconia

Ekarri iragarki hau Zubipera eta hartu kafe bat dohainik Cafés Aitonari esker

AITONA

GAUR Egunaren lehenengo zatia hodeitsu egongo da, eta ez da bazterzen egunaren hasieran euria egitea. Eguerditik aurrera ostearteak ugartu egingo dira eta hobera egingo du. **Min.7° / Max.13°**

BIHAR Gaur udaberriko giroa izango da nagusi, giro lasaia eta zerua hodei gutxiarekin egongo da. Goizean hego haizea ibiliko da, baina gero ipar-haizea nagusituko da. **Min.7° / Max.16°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Dobera Udala

Goizuetako Udala

Aranoko Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOAK:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

ELKARTEAK

GIJONKO FORU ALDUNDIA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

PREZIOA

Udal aurrekontuez hitz eginen dute, gaur arratsaldeko batzarrean

Batzarra eginen dute gaur arratsaldeko 18:30etan, udaletxeko ganbaran eta udalaren 2020ko aurrekontuez hitz eginen da.



2020ko aurrekontuez ariko dira gaur arratsaldeko batzarrean.

GOIZUETA UDALA

Gaur arratsaldeko 18:30etan, batzarra antolatu da, udaletxeko ganbaran. Bertan, legealdi honetan, Udalaren asmoak zeintzuk diren azalduko dira,

eta 2020eko aurrekontuei buruz ere jardungo dute. Batzarra irekia da, beraz, herritarrei bertaratzeko gonbitea luzatu die Udalak, hauen asm, oak zein diren jakiteko. **K**

Etxebizitza alokairuan hartzeko eskaerak, martxoaren 9ra arte

Martxoaren 9ra arte eska daitezke etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak. Eskaera orria eskuragarri dago udal webgunean.

HERNANI UDALA

Eskaera egiteko epea zabalik dago eta martxoaren 9ra arte egin daitezke. Eskaera-orria eskuragarri dago udal webgunean eta Herritarren Harrera Zerbitzuan. Eskaera-orri hau egoki bete eta beharrezkoa den dokumentazioa atxikita, udal erregistroan aurkeztu behar

da. Aurreko urteetako eskatzailer izan bazara, «eta dagoeneko eskatzen den dokumentazioa Udalean badago, ez da berriro aurkeztu behar». Informazio gehiago behar izanez gero, dirulaguntzaren oinarriak udal webgunean edo Herritarren Harrera Zerbitzuan aurki daitezke.

2018an, 106 eskaera jaso zi-

ren: 35 urtetik beherako gazteen eskaerak 71 izan ziren eta horietatik 55 «laguntzarekin onuradun izan ziren». 36 urte edo gehiago zituzten 35 pertsonen eskatu zuten dirulaguntza, eta «21 izan ziren onuradun». Guztira beraz, «76 onuradun izan ziren 2018. urtean». Azken deialdi honetan, oraingoz, 32 eskaera daude, «aurreko urteekin alderatuta eskaera gutxi direnez, interesatuei gogorazi nahi diegu laister amaituko dela eskaera egiteko epea eta epea amaitu ondoren ez dela eskaerarik onartuko. **K**



Dobera Euskara Elkarteko eta mintzalaguneko kideak, 'Egunak egin du' programan.

'Egunak egin du' programan izan ziren, mintzalagunak

HERNANI DOBERA

Aurreko asteko arteartean, Dobera Euskara Elkarteko mintzalagunak 'Egunak egin du' saiora joan ziren publiko

moduan. Bi saio grabatu ziren eta ederki pasa zuten. Egunak egin du, Klaudio Landak aurkeztzen duen programa honetan, munduan gertatzen diren

albisteak landuz solasaldiak egiten dituzte. Eta hau, Hernaniko mintzapraktikako lagunei ederki etorri zitzaizkien euskaraz praktikatzeko.

Eskuz eta palaz partiduak, gaurkoan ere

Hainbat partidu jokatu dira, gaur eta bihar eskuz eta palaz Hernanin, Astigarragan eta Goizuetan.

URUMEA PELOTA ETA PALA

Inauterien asteburua izanik, ez dute atsedenik egingo zenbait pilotari eta palistek. Gaur arratsaldean, Tilosetako frontoian, aukera dute 8 urtetik gorakoek, 16:45etatik 17:45etara palarekin hainbat partidu jokatzeko, CD Hernani eta Hernaniko palisten eskutik. Horrez gain, Hernaniko pelotariak, bat egin dute Inauterietan, eta txapelketa bat antolatu dute, gaur hiru partidu jokaturik. Arratsaldeko 20:00etatik aurrera izango dira, eta honakoak dira jokatu diren partiduak: kadeteetan, Jona Jara eta Unai Etxarri, Arrillaga eta Belokiren aurka ariko dira. Seniorretan, Unax Uitzu eta Oinatz Intsaustik, Saralegi eta Goikoetxeandia izango dituz-

te aurkari eta seniorretan, Josu Altuna eta Oihan Zugastik, Zapiain eta Migeltorenaren aurka jokatu dute.

Mundarroko, gaur eta bihar

Astigarragan ere ez dute hutsik egingo pelotari eta palistek, izan ere, gaur hiru partidu jokatu baitira, bi palazkoak eta bat eskuz. Arratsaldeko 19:30etan, Mundarrokoek, Hernaniren aurka jokatu dute, Astigarragan. Hernaniz gain, astigarrar neska palistek Intxurre izango dute aurkari, etxean, eta eskuz, Añorgaren aurka jokatu beharko dute astigarrar mutil kadeteek.

Bihar berri, Hernani eta Astigarragako kadeteak aurkari izango dira eskuzko partiduan, arratsaldeko 15:30etan, Gaskan.

Mendialdeko Binakakoak, gaur

Gaur arratsaldeko 17:30tan, jokatu da Mendialdeko Binaka I. pilota txapelketa. Komiak 2 izango dira gaurkoan; J. Alsua eta Aranberrik, M Zurutuza eta Lujanbioren aurka jokatu dute. **K**


Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

FERMIN APELLANIZ ESCARIO
(Paki Aranburu Urkizuren alarguna)
Asteartean hil zen, Errenterian, 77 urte zituela
- Goian bego -

Har ezazu atseden eta izan dezazula Pakirekin zorion betea

Familiak haren arimaren alde otoitz egitea eskatzen dizue.
Aldez aurretik, mila esker.



Hernanin, 2020ko otsailaren 21ean

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak HARRERAKO LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontrata: 6 hilabete, hasteko. Frantsesa eta ingelesa eskatzen dira. Lana luzerako da. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontrata: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta ingelesa eskatzen dira. Lanaldi osoa eta luzerako. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Allianz 
ASEGURUAK

- biztra-
- istripuak -
- ibilgailuak -
- etxeak -
- komertzioak -
- enpresak -
- ardura zibila -
- finantz aseguruak -
- inbertsioak -

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71



mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI